

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Lan-unitatean, ikastetxeko gurasoak konbentzitu beharko dituzu seme-alabekin mahai-jokoetan euskaraz aritu daitezen, baina rol batean oinarrituta emango duzu iritzia. Oraingoan, gaiaren inguruko zeure benetako iritzia emango duzu: **audio labor bat grabatuko duzu**, eta **euskaltegiaren blogera igoko duzu**. Hona hemen gaia: zer iruditzen zaizu Santi Anguloren proposamena?
- ✓ Ba al dituzu etxean bideo-jokorik edo mahai-jokorik? Bada, ezagutu egin nahi ditugu! **Graba ezazu** bideo labor bat telefonoarekin, erakutsi non gordetzen duzun, nolakoa den, eta, batez ere, azaldu nola jokatzen den (zein den helburua, nolako prozedura duen, zenbat jokalaria behar diren, zenbat denbora behar den...). **Eraman** ikasgelara, **erakutsi** ikaskideei, eta **jokatu!** Baliteke mahai-jolas bat baino gehiago izatea. Edo bestela aukeratu bat.
- ✓ **Eskatu** irakasleari euskaltegian dauden mahai-jokoak ikasgelara eramateko. Baten batean aritu nahi?
- ✓ Ba al zenekien Gasteizko IKAk urtero antolatzen duela **Euskarbel Txapelketa**? **Bilatu** horren inguruko informazioa euskaltegiaren web-orrian, eta **komentatu** ikaskideekin.
- ✓ Badago Gasteizen Ronin izeneko denda espezializatu bat. Hor, honako hauek aurkituko dituzu: komikiak, rol-jokoak, karta-jokoak, figura-jokoak, gerra-jokoak eta bideo-jokoak. Ba al dakizu non dagoen? **Bilatu** informazioa Interneten, eta **komentatu** ikaskide batekin. Animatuz gero, zergatik ez bisitatxo bat bertara?

Internet aprobetxatuta:

- ✓ Geratu ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **Euskadi Irratikoko bi saio hauek**. Entzun itzazue, nork berea, **egin ezazue laborpentxo**, eta **azal iezaiozue elkarri**.
 1. Mahai-jokoak boladan daude. *Monopoly*-a edo *Risk*-a alde batera geratu dira, rol-joko berriei lekua egiteko.
 2. Mahai-jokoak: gozatzeko, ikasteko eta terapiarako. Trapagaranen, hilabete eta erdiz behin, lagun talde bat elkartzen da mahai-jokoetan aritzeko, eta ziur dira gozamenaz gainera terapiarako eta ikasteko ere baliagarri zaizkiela.
- ✓ Lan-unitatean, luze eta zabal hitz egingo dugu mahai-jokoetan euskaraz aritzeari buruz, baina ba al dakizu zenbat mahai-joko dauden euskaraz? **Sartu helbide honetan**, **begira ezazu** zein diren, **aukera ezazu** pare bat, **irakur itzazu** xehetasunak, eta **azal iezaiozue ikaskide bati**.